



naren ahotsa entzuteko prest. Pertsonaren dimentsio espiritual bere fede-bizitzaren giltzarria da.

Ibilbide espiritualaren prozesu osoaren haria Frantzisko Aita Santuaren *Evangelii Gaudium* idatzia izango da, irteeran dagoen Eliza baten benetako testu inspiratzailea. Bertan, Aita Santuak gogorarazten digunez, “Ebanjelioaren pozak Jesus-ekin topo egiten dutenen bihotza eta bizitza osoa betetzen ditu” (EG 1), eta Berri Ona gogoz, erraztasunez eta hurbiltasunez iragartzen duten ikasleak izatera gonbidatzen gaitu. Pastoral ezin da antolakuntzara edo kudeaketara mugatu: bihotz sutsuak behar dira, Ebanjelioaren entzute sakonetik bizi diren eta Jainkoaren graziari beren bizitzak berritzen uzten dioten gizon eta emakumeenak.

Frantzisko Aita Santuak *Evangelii Gaudium*en gogoratzen duen bezala (262): “Elizak inoiz baino gehiago behar du otortzaren arnas hartzea”. Horregatik, material honek elikagai espiritual izan nahi du, misioa Jainkoaren esperientzia bizi batetik sortzen dela jakinda, itxaropenez zerbitzatu nahi duten guztientzat. Textu honetan sakontzea ez da soilik irakurketa ariketa bat, misio iraunkorrean bizi den elkarte bat bihotz berritzeko deia baizik, non fededun bakoitza Espiritu Santuak bidalia eta lagunduta sentitzen den.

Material honekin, gure elizbarrutietako elkarteak berritze espiritual eta pastoreko garaia bizi dezaten nahi dugu. Izan ere, Hitzak eraldatzen uzten duen Eliza bat bakarrik izan daiteke benetan misiolaria eta Jainkoaren maitasunaren zeinua munda.

IKASLE MISIOLATZIAK

Hitzarekin
topatuz

2025-2026



Donostiako
Gotzaindegia
Obispado de
San Sebastián



SARRERA

Donostiako gure Elizbarrutia egiten ari den eraberritze pastoral eta misiolari prozesu barnean, “Hitzarekin Topatuz” materiala proposamen pastoral eta espiritual gisa aurkezten da, berrikuntza pertsonal eta komunitarioaren zerbitzura. “Ikasle Misiolariak” izenburuarekin, ibilbide honek fededun guztiak gonbidatzen ditu gure elkarteentzat argi eta itxaropen iturri den Jainkoaren Hitzaren balio eraldatzailea berraurkitzera. Aldaketa sakoneko garai batean, fedea errutinan edo etsipenean urtzeko arriskuan dagoen garai batean, Ebanjeliora itzuli behar dugu bihotz ireki eta eskuragarri batekin, oraindik ere haren atzetik joateko eta bozkarioz iragartzeko dei egiten digun Jau-